

BESTELAKO XEDAPENAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

4799

EBAZPENA, 2018ko irailaren 24koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, «Elorriko udalerrian Toloto errekastoren hiri barruko tartea egokitzeko proiektua» jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onespina ematen diona.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak, 2018ko ekainaren 27ko Ebazpenaren bitartez, Elorriko udalerrian Toloto errekastoren hiri barruko tartea egokitzeko proiektuari hasierako onespina eman zion, eta jendaurreko kontsultan jarri zen.

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2018ko uztailaren 9an. Behin jendaurrean jartzeko epea bukatuta, ez da alegaziorik aurkeztu.

Halaber, proiektua aztertu eta aldeko txostena emanda dago, teknikoki zuzena dela eta alorreko legeria berezia betetzen duela egiaztatu da, bai eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233. artikulua eta indarrean dauden bestelako legezko xedapenak ere.

Administrazio Kontseiluaren 2010eko ekainaren 29ko saioan emandako eginkizunen eskuordetza betez, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 13.f) artikuluari jarraituz, lege beraren 15.m) artikulua eta Agentziako 7.2.ñ) artikulua araberak, zuzendari nagusiari dagokio proiektu honen onspina.

Hori aintzat harturik, jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onspina eman behar da.

Horiek horrela, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Elorriko udalerrian toloto errekastoren hiri barruko tartea egokitzeko proiektua» jendaurrean jartzeko izapidea ebatzea.

Bigarrena.– «Elorriko udalerrian toloto errekastoren hiri barruko tartea egokitzeko proiektua» behin betiko onestea, kontratarako aurrekontua hau dela: milioi bat hirurehun eta laurogeita hiru mila zazpiehun eta hemeretzi euro eta hogeita lau zentimo (1.383.719,34) BEZa barnean dagoela.

Hirugarrena.– Uraren Euskal Agentziako teknikariek lanen zuinketa egin dezatela; bertan proiektuaren errealitate geometrikoa eta onartutako proiektuan agertzen diren kontratua aurrera eramateko oinarrikoak diren suposizio guztiak egiaztatzeko.

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 6.4 artikuluari jarraituz, ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 24a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
ERNESTO MARTINEZ DE CABREDO ARRIETA.